



**ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA  
GARRAIO SAILA**  
Etxebizitza Sailburuordetza  
*Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA  
OBRAS PUBLICAS Y TRANSPORTE**  
Viceconsejería de Vivienda  
*Dirección de Vivienda, Innovación y Control*

# **IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUA**

## **URTEKO TXOSTENA 2008. eta 2009. URTEAK**

**URTEKO TXOSTENA  
2008. eta 2009. URTEAK**

**IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL  
KONTSEILUA**

**AURKIBIDEA**

1.- AURREKARIAK .....	3
2.- IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUAREN BILERAK .....	4
3.- IRISGARRITASUN ARLOKO LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUA .....	13
3.1.- Kontsultak ebazteko eta aholkularitzako zerbitzua .....	13
3.2.- Irisgarritasuna Sustatzeko Batzorde Iraunkorrerako, Euskal Kontseilurako eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailerako laguntza teknikoa. ....	17
4.- IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUARI PROPOSATUTAKO GAIEN LABURPENA .....	20
4.1.- Txosten-eskaerak eta kontsultak .....	20
4.2.- 2008. urteko salbuespenak jakinaraztea. ....	23
4.2.- 2009. urteko salbuespenak jakinaraztea. ....	42
5.- GAUZATUTAKO PRESTAKUNTZA EKINTZAK .....	59
6.- 2008. ETA 2009. URTEETAN OSATUTAKO EDO OSATZE PROZESUAN DAUDEN UDALETAKO IRISGARRITASUN PLANAK. ....	62
7.- UDALETAKO IRISGARRITASUN PLANETARAKO ETA OBRETARAKO LAGUNTZA EKONOMIKOEN DEIALDIA.....	67
7.1.- 2008. urteko diru-laguntzak .....	67
7.2.- 2009. urteko diru-laguntzak .....	76

## 1.- AURREKARIAK

Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legea honako helburu honekin onartu zen: hiri-ingurunearen, espazio publikoen, eraikinen, garraiobideen eta informaziorako eta komunikaziorako sistemen irisgarritasuna bermatzea, pertsona guztiek eta, batez ere, mugigarritasun murriztua, komunikazio-zailtasunak edo muga psikiko zein sentsorialak –aldi baterakoak zein iraunkorrak– dituztenek era autonomoan erabil eta balia ditzaten.

20/1997 Legearen V. tituluan IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUA aipatzen da; lege horren 24. artikuluan honako hau ezartzen da: administrazioek, desgaituen ordezkari diren erakundeek eta elkarteek, erabiltzaileek, sustatzaileek eta profesionalen elkargoek osatutako aholku-organo eta organo parte-hartzailea da, 25. artikuluan araututako osaerarekin.

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilu horren eginkizunak honako hauek dira, 26. artikuluari jarraiki:

- a) Urtean behin txosten bat egitea, lege horretan ezarritakoa zein mailataraino betetzen den ezagutarazteko, eta gero Legebiltzarrera bidaltzea.
- b) Irisgarritasunaren arloan eskumenak dituzten organoei aholku ematea eta jarduteko irizpideak proposatzea, lege horretan xedatutakoaren arabera.
- c) Horren antolamendu eta funtzionamendurako araudia onestea.
- d) Bere esku uzten diren beste eginkizun batzuk.

Eskakizun hori betetzeko, jarraian Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren jardueren 2008. eta 2009. urteetako Txostena aurkeztu da.

## **2.- IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUAREN BILERAK.**

2008. urteari dagokionez, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua behin bakarrik bildu zen. Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua 2008. urteko irailaren 29an Osoko Bilkuran bildu zen.

Jarraian, bilera horren akta-zati baten eta jorratutako gaien zerrenda laburbildua azalduko dugu. Akta hori Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren hurrengo osoko bilkuran onartuko da.

### **Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren 2008. urteko irailaren 29ko bilera.**

#### **Bertaratuak:**

Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritza. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

Osasun Saila.

Garraio Zuzendaritza. Garraio eta Herri Lan Saila.

Turismo Administrazioiko eta Lehiakortasuneko Zuzendaritza Industria, Merkataritza eta Turismo Saila.

Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritza. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila.

Gizarteratze Zuzendaritza. Bizkaiko Foru Aldundia.

Arabako Foru Aldundia.

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala.

Arabako Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargoa.

Erretiratuen eta Pentsiodunen Lurralde Federazioa.

Euskadiko Kontsumitzaileen Federazioa.

Elkartean Gipuzkoa.

Elkartean Araba.

Elkartean Bizkaia.

ONCE.

Euskal Gorrak. Pertsona Gorren Elkartean Euskal Federazioa.

#### **Bertaratu ezina azaldu dute:**

Gizarte Ongizateko Zuzendaritza. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.  
Gizarte Politikarako Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.

### **Laguntza Teknikoa:**

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren Idazkaritza.  
Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritza.

Irisgarritasun arloko Laguntza Teknikoko Zerbitzuaren arkitektoa.

Irisgarritasun arloko Laguntza Teknikoko Zerbitzuaren abokatua.

Irisgarritasun arloko Laguntza Teknikoko Zerbitzuaren Administrazio Euskarria eta Idazkaritza.

2008. urteko irailaren 29an, Pilar Garrido Gutiérrez andreak bilera ireki zuen; bertaratuei eskerrak eman ondoren, Kontseiluko kideei jakinarazi zien Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailean sartu zela Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontroleko zuzendari gisa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburu Javier Madrazo Lavín jauna ez zela joango adierazi zuen, eta bertaratuei agertu zien zer zela-eta azkenean ez zen egin Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek 2007. urteko abenduan egin beharreko bilera, eta zer zela-eta atzeratu zen Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkura irailera.

Behin aurkezpenak egin ondoren, deialdian proposatutako **Gai Zerrendari** heldu zaio.

### **Lehenengo puntua: Aurreko Akta irakurtzea eta Onartzea (2007. urteko ekainaren 27a)**

ERABAKIA: Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak 2007. urteko ekainaren 27an egindako Osoko Bilkuraren Akta onartzea.

ERABAKIA: EAEko Udaletara eta Eudelera igortzeko proposatutako dokumentuaren testua onartzea, 2007. urteko ekainaren 27an Kontseiluaren Osoko Bilkuran onartutako 3. eta 4. erabakiak betez. Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak, adierazitako dokumentuaren bitartez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen garapenak Udalen eskura uzten dituen aukerez baliatzea eskatzen du, irisgarritasuna faboratzeko joera duten neurriak sustatzeko; orobat, irisgarritasunean trebatutako langileek aholkularitza eman dezaten eta gai horretan herritarren partaidetza faboratzeko dagozkion mekanismoak ezar daitezen aholkatzen du.

### **Bigarren puntua: Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren 2007. ekitaldiari dagokion urteko txostena aurkeztea eta onartzea.**

ERABAKIA: 2007. ekitaldiko Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Urteko Txostena onartzea, eta, jarraian, Legebiltzarrari igortzea.

**Hirugarren puntua: Irisgarritasuna bermatzeko Irisgarritasun Planak egiteko edota Obrak Burutzeko emandako diru-laguntzei buruzko informazioa eta 2008. urteko diru-laguntzen deialdia.**

Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontroleko zuzendariak adierazi zuen irisgarritasun-planak egiteko, hobekuntza-obrak burutzeko eta hiri-ingurunean zein eraikinetan irisgarritasuna bermatzeko beharrezkoak diren ekipamenduak erosteko Udalei, Herri-izaerako gainerako Erakundeei eta irabazi asmorik gabeko eta herri-onurako Erakundeei diru-laguntzak emateko deialdia zein baldintzetan ebatzi zen (2007. urteko abuztuaren 2ko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena – 171. EHAA– 2007/09/05).

Orobat, irisgarritasun-planak egiteko eta irisgarritasuna faboratzeko obrak burutzeko laguntzen deialdiaren berri eman zitzaion bertaratuei (2008. urteko uztailaren 17ko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, 172. EHAA, 2008/09/10); deialdi horren bitartez, 3.180.000 euro zuzentzen dira Udaletarako eta Herri-izaerako Erakundeetarako laguntzetarako, eta 300.000 euro irabazi asmorik gabeko eta herri-onurako erakundeetarako laguntzetarako.

Erretiratuen eta Pentsiodunen Lurralde Federazioaren ordezkartzaren aburuz, zaharren etxebizitzetan egokitzen egiteko laguntza-ildoak handitzea ezinbestekoa da, beren etxebizitzetan baldintza egokietan geratzea ahalbidetuko baitie horrek biztanleriaren oso sektore garrantzitsu bateko pertsoneri, eta beraz, beren etxebizitzan sartuta egotera, eta zenbait kasutan, etxebizitza hori uztera eta laguntza-zentroetan sartzera behartutako pertsona zahar askok dituzten arazoak konponduz.

**Laugarren puntua: Foru Aldundien laguntza, desgaituei esleitutako etxebizitzak egokitzeko prozedurei dagokienez, betiere, egin behar diren esku-hartzeak eztabaidatu ondoren edo eztabaidatu gabe, laguntza hori egokitzen jotzen bada.**

Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontroleko zuzendariak Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundiekin izandako elkarrizketen berri eman zien Kontseiluko kideei, eta gainera, adierazi zuen Foru Aldundi horiek aipatutako kasuetan Etxebizitza Zuzendaritzarekin elkarlanean aritzeko prest daudela erabat. Erreserbatutako etxebizitzak egokitzeko espedienteak Etxebizitza Sailaren Lurralde Bulegoen bitartez bideratuko dira.

Bertaratuei jakinarazi zitzaien Laguntza Zerbitzua espedienteekin laguntzeko prest dagoela, Lurralde Ordezkaritzen irizpidearen arabera esku-hartzea egokitzen jotzen den kasuetan.

**Bosgarren puntua: Irisgarritasunaren Gasteizko Udal Kontseilua. ISEKi egindako eskaera, eraikinetan dauden igogailu egokituen kopuruari buruzkoa.**

Eztabaida irekin ondoren, teknikariek eta laguntza-zerbitzuak adierazi zuten eraikinetan instalatu beharreko igogailu egokituen kopuruaren zehaztapena jardun-esparru bakoitzean sektorialki eskumenekoa den araudiaren bitartez aurreikusi behar dela deritzela, araudiak erregulatzen baititu fluxuak eta zehazten baititu eraikin bakoitzeko edukierak. Irisgarritasun-araudia ez da planteatutako gaia zehaztapen-maila horretan erregulatzeko arau multzo egokia.

ERABAKIA: Irisgarritasunaren Gasteizko Udal Kontseiluari jakinaraztea eraikinetan instalatu beharreko igogailu egokituen kopurua irisgarritasun-araudian erregulatzeari buruzko eztabaidaren ondorioak.

ERABAKIA: Eudel elkartera, Foru Aldundietara (Zerbitzu Orokorrak), eta Eusko Jaurlaritzara (Zerbitzu Orokorrak) dokumentu bana igortzea, fluxuekin eta pertsonen irisgarritasunarekin lotutako alderdiak erregulatzean –hala nola kiroldegietan, hoteletan, administrazio-bulegoetan, ospitaleetan, museoetan eta abarretan instalatu beharreko igogailu kopurua–, bi gai horiek duten lotura kontuan hartuz presatuz, betiere, bakoitzari dagokion jardun- eta eskumen-esparruan.

**Seigarren puntua: Irisgarritasunaren Euskal Erakundea – Erakunde hori Legearen bitartez sortzeko azterketa. Irisgarritasun-politika publikoaren kudeaketa arautzeko aukera horretarako egokitzen diren organoak sortuz edota duden organoak birplanteatuz. Egindako kontsultak.**

Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontroleko zuzendariak adierazpen labur bat egin zuen, gai hori Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkuraren Gai Zerrendara iritsi arte jarraitutako legebiltzar-izapideari buruzkoa.

Ondoren, Kontseiluaren aurreko Osoko Bilkurako kideek adierazitako iritziak laburtu zituen; iritzi horiek Euskal Kontseiluaren Ezohiko Osoko Bilkura baten deialdia egiteko erabakian amaitu ziren, eta Jaurlaritzako Sailak erantzuna atzerapenez eman zuenez, Ezohiko Osoko Bilkura hori ez zen egin; ondorioz, gai horri Kontseiluaren Osoko Bilkura honetan heldu zaio.

Orobat, Etxebizitza Zuzendaritzak berak eta laguntza teknikoak irisgarritasunaren alorrean egindako jardunen jakinaren gainean jarri zituen bertaratuak. Horrela, kolektiboekin (4) izandako harremanak aditzera eman ziren, baita horiek emandako erantzunak ere; horri dagokionez, Irisgarritasunaren Euskal Institutua sortzearen aldekoak izan dira erantzun gehienak (3), honako ñabardura hauekin:

- a) Gaitasun eta autonomia funtzionala eta ekonomikoa duen organoa izatea.
- b) Edozein motatako irisgarritasun-arazoak dituzten pertsonen kolektiboen ordezkariak izatea.
- c) Bere eginkizunak Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluarekin osatzea.

Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontroleko zuzendariak adierazi zuen Eusko Jaurlaritzako Sail guztietan helarazi zirela kolektiboekin izandako harremanetan ateratako ondorioak, bakoitzari dagozkion jardun-esparruei zegokienez Sail horiek egokitzat jotako balioespenak egin zitzaten.

Izapide horretan, Jaurlaritzaren Sailen arteko seik erantzun dute, eta horietako bosten aburuz, kolektiboek egokitzat jotako diseinu-ezaugarriak izango lituzkeen Institutu autonomo bat sortzeak eginkizun-gainjarpenak edo/eta gatazkak eragin ditzake, herri-administrazioek dituzten eskumen-mugen arabera. Halaber, proposatutako diseinuak eskatuko lukeen inbertsioari (giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak) buruzko beste mota bateko balioespenak ere egin ziren.

Jaurlaritzaren barruko beste Saila kolektiboek ondorioei atxiki zaie, hots, lehen adierazitako ezaugarriak eta ñabardurak edukiko lituzkeen Institutu bat sortzearen aldekoa da. Jaurlaritzaren gainerako Sailek ez dute horri buruzko adierazpenik egin.

Kontseiluko kideak eztabaidan hasi ziren, eta eztabaida horretan, honako kontsiderazio hauek egin ziren:



- Euskal Kontseiluak eginkizun garrantzitsua du, baina gaur egunean, esleipen handiagoak eman behar zaizkio. Irisgarritasunaren alorrean eskumenak dituzten organoei aholkatzeko eta jardun-irizpideak proposatzeko ahalmena – Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legearen bitartez eman zitzaiona– oso garrantzitsua da, baina askotan itxuragabetuta geratzen da, Kontseiluak emandako irizpenak edo interpretazio-irizpideak ez baitira lotesleak, eta beraz, kasu bakoitzean eta gaiaren arabera eskudunak diren herri-administrazioen borondatearen eta irizpidearen mende geratzen baitira hark finkatutako jarraibideak.
- Zeharkakotasuna irisgarritasunari datxekion ezaugarria da, eta horrek esan nahi du irisgarritasuna gizarteko sektore eta jardueretan dagoela; hori dela-eta, irisgarritasunaren kudeaketa hainbat administrazioetan diluitzen da (toki-administrazioetan, foru-administrazioetan eta erkidego-administrazioetan), eta administrazio horien barruan, hainbat Departamentutan, eta beraz, horiek guztiak eraginpean hartzen dituzenez, irisgarritasun-araudiaren betearazpena egiaztatzeko espezifikoki espezializatutako langileak izendatu beharko lirateke eskumen-esparru bakoitzean.
- Herri Administrazioak arretatsuak dira euren eskumen-esparruekin, eta irisgarritasun-araudiaren betearazpena bermatzean eta egiaztatzean bakoitzak bere esparruan duen erantzukizuna defendatzen badute ere, gehienek espezifikoki horretarako izendatutako langilerik ez dute, horretarako aurrekontu-partida espezifikorik ez dute aurreikusten, eta irisgarritasunaren alorreko jardun-egutegirik ez daukate, salbuespenak salbuespen; beraz, Sail gehienek ez dute sistematikoki ebaluatzen bakoitzari dagozkion esparruetan aurreikusitako jardunen betearazpen-maila.
- Arestian agertutako egungo zirkunstantzietan, korapilatsua da irisgarritasun-politika bat finkatzea eta hezurmamitzea, baita diru-laguntzen programa koherente eta koordinatu bat zehaztea edota aplikazio-jarraibide orokorrak ezartzea ere, eta beraz, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak ez du esku hartzeko ahalmenik gaur egun, kontuan hartzen ez badira inolako urratzerik ez dakarten gomendioak egitekoa baino ez.

Osoko Bilkurak erabaki zuen Legebiltzarra egindako kontsulten eta desgaitasunen bat duten pertsonen kolektiboek eta Jaurlaritzaren Sailek emandako erantzunaren jakinaren gainean jartzea. Orobat, batetik, eztabaidaren ondoriozko kontsiderazioak helaraztea erabaki zen, eta bestetik, Eusko Legebiltzarrean honako hauek aztertzeko eskatzea: Euskal Kontseiluak planteatutako profilerak gehien egoki daitekeen

antolamendua, eskumenei eta aurrekontuei dagokienez, edo bestela, eta hala badagokio, Euskal Kontseiluak Irisgarritasuna sustatzeko duen eginkizuna aktibatzea eta indartzea, eta Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legean aurreikusitakoa garatuz, gaur egunean esleituta dituen kontsulta- eta partaidetza-ahalmenak areagotzea, nabarmena baita ez direla nahikoak; Legebiltzarrari erantzuteko dokumentua, Legebiltzarrera igorri baino lehen, Kontseiluaren Osoko Bilkurako kideei igorriko zaie.

ERABAKIA: Legebiltzarra egindako kontsulten eta desgaitasunen bat duten pertsonen kolektiboek eta Jaurlaritzaren Sailek emandako erantzunaren jakinaren gainean jartzea, eta adierazitakoari jarraiki, Eusko Legebiltzarrean honako hauek aztertzeko eskatzea: adierazitako profila edukiko lukeen Institutua sortzeak izango lukeen inpaktua era antolamendua, eskumenei eta aurrekontuei dagokienez, edo bestela, eta hala badagokio, Euskal Kontseiluak Irisgarritasuna sustatzeko duen eginkizuna aktibatzea eta indartzea, eta Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legean aurreikusitakoa garatuz, gaur egunean esleituta dituen kontsulta- eta partaidetza-ahalmenak areagotzea, nabarmena baita ez direla nahikoak; Legebiltzarrari erantzuteko dokumentua, Legebiltzarrera igorri baino lehen, Kontseiluaren Osoko Bilkurako kideei igorriko zaie.

**Zazpigarren puntua: Desgaitasunen bat duten pertsonen egokitutako etxebizitzetan esekitokiak diseinatzearen problematika.**

Desgaitasunen bat duten pertsonentzat erreserbatutako etxebizitzak egokitzearen gaiari heltzean jorratu zen adierazitako gai hori, zehazki, Gai Zerrendaren laugarren puntuan.

Kontseiluak hainbat alternatiba planteatu zituen, egokitutako etxebizitzetan esekitokiak diseinatzeko konponbide posible gisa, eta gai hori korapilatsua denez gero, arropa lehortzen duen etxetresna elektrikoren bat instalatzeko aukera ere aztertu zen.

Ez zen inolako erabakirik hartu horren inguruan.

**Zortzigarren puntua: Galde-eskeak.**

Ezinbestekotzat jotzen da Herri Administrazioek inplikazio eta antolamendu handiagoa izan dezaten, irisgarritasun-araudiaren betearazpena eta herritar guztientzako irisgarritasun-baldintzen sustapena faboratzeko, pertsonen

berdintasuna eta horien eskubideen benetako errespetua lortzeko bide bakarra den aldetik. Benetako neurriak hartzeaz gain, horretarako giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak areagotu behar dira.

Erretiratuen eta Pentsiodunen Lurralde Federazioko ordezkariak behin eta berriz adierazi du beharrezkoa dela pertsona zaharren etxebizitzak eta pentsiodunen zentro eta elkarteak egokitzeko laguntza-ildoak handiagotzea.

Administrazioek dute herritarren eskubideak bermatzeko erantzukizuna, eta irisgarritasun unibertsala funtsezko premisa da lan horretarako, baita herritarrei eska dakizkiekeen alderdiak Administrazioek etsenpluz betetzea ere.

Aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol zuzendariak amaitutzat jo du 2008. urteko Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkura.

Jarraian, **HARTUTAKO ERABAKIAK** transkribatzen dira:

1. ERABAKIA: 2007. urteko ekainaren 27ko Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkuraren Akta onartzea.

2. ERABAKIA: EAEko Udaletara eta Eudel elkartera igorri beharreko testua onartzea; testu horretan honako hauetara estutzen dira adierazitakoak: batetik, irisgarritasuna faboratzeko joera duten neurriak sustatzeari dagokionez 2/2006 Legeak udalerrien eskura uzten dituen arau-betearazpenenerako aukerak erabil daitezten, eta bestetik, irisgarritasunari eta herritarrek gai horretan parte har dezaten faboratzeko mekanismo egokiak ezartzeari buruzko gaietan teknikariei aholkularitza emango dieten langile kualifikatuak txerta ditzaten plantilletan.

3. ERABAKIA: 2007. ekitaldiko Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Urteko Txostena onartzea, eta, jarraian, Legebiltzarrari igortzea.

4. ERABAKIA: Irisgarritasunaren Gasteizko Udal Kontseiluari eraikinetan instalatu beharreko igogailu egokituen kopurua irisgarritasun-araudiaren bitartez erregulatzeari buruz Eusko Jaurlaritzak egindako azterlanaren ondorioen berri ematea.

5. ERABAKIA: Eudel elkartera, Foru Aldundietara (Zerbitzu Orokorrak), eta Eusko Jaurlaritzara (Zerbitzu Orokorrak) dokumentu bana igortzea, fluxuekin eta pertsonen irisgarritasunarekin lotutako alderdiak erregulatzean –hala nola kiroldegietan, hoteletan, administrazio-bulegoetan, ospitaleetan, museoetan eta abarretan instalatu beharreko igogailu kopurua–, bi gai horiek duten lotura kontuan hartzera presatuz, betiere, bakoitzari dagokion jardun- eta eskumen-esparruan.

6. ERABAKIA: Legebiltzarra egindako kontsulten eta desgaitasunen bat duten pertsonen kolektiboek eta Jaurlaritzaren Sailek emandako erantzunaren jakinaren gainean jartzea, eta adierazitakoari jarraiki, Eusko Legebiltzarrean honako hauek aztertzeko eskatzea: adierazitako profila edukiko lukeen Institutua sortzeak izango lukeen inpaktua era antolamendua, eskumenei eta aurrekontuei dagokienez, edo bestela, eta hala badagokio, Euskal Kontseiluak Irisgarritasuna sustatzeko duen eginkizuna aktibatzea eta indartzea, eta Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legean aurreikusitakoa garatuz, gaur egunean esleituta dituen kontsulta- eta partaidetza-ahalmenak areagotzea, nabarmena baita ez direla nahikoak.

Legebiltzarrari erantzuteko dokumentua, Legebiltzarrera igorri baino lehen, Kontseiluaren Osoko Bilkurako kideei igorriko zaie.

### 3.- IRISGARRITASUN ARLOKO LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUA


Irisgarritasun-arloko Laguntza Teknikoko Zerbitzuak honako jarduera hauek egiten ditu:

- Kontsultak ebazteko eta aholkularitzako zerbitzua.
- Irisgarritasuna Sustatzeko Batzorde Iraunkorrerako eta Euskal Kontseilurako laguntza teknikoa.
- Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailerako Laguntza Teknikoa.


#### 3.1.- Kontsultak ebazteko eta aholkularitzako zerbitzua:

Jendeari arreta emateko Zerbitzua da, eta administrazio publikoek eta partikularrek irisgarritasunari buruz planteatutako kontsulta guztiak (legediari dagozkionak, teknikoak eta laguntzei buruzkoak) jasotzen eta erantzuten dira Zerbitzu horretan. 2008. eta 2009. urteetan Zerbitzu horren bitartez erantzundako kontsultei buruzko datuak laburbilduko ditugu jarraian.


2008. urteko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarte, Zerbitzuan jasotako eta erantzundako kontsultak, guztira, honako hauek izan dira: **704** (366 2008. urtean eta 338 2009. urtean). Zerbitzuak hileko batez besteko 33 kontsulta izan ditu 2008. urtean, eta 31 2009. urtean; beraz, guztizko batez bestekoa 32 kontsulta izan dira.




Kontsultak zein **Lurralde Historikotatik** egin diren zenbatzean, kontsulta gehienak Bizkaikoak dira (404); bigarren postuan Gipuzkoa dago (155), eta EAEko hiru probintzietatik kontsulta gutxien egin dituen probintzia Araba da (92). Beste Autonomia Erkidegoetatik ere egin dira kontsulta gutxi batzuk.




Kontsulta gehienak pertsona juridiko pribatuek egin dituzte (% 70); jarraian pertsona juridiko publikoek (zehazki, Zerbitzuko erabiltzaileen % 19), eta, azkenik, pertsona fisikoek, partikularrek (gainerako % 11, hain zuzen).




Pertsona juridiko publikoek egindako kontsulten barruan, Zerbitzua eskatzen duten udalen kopurua nabarmentzen da, kontsulten % 78 udaletatik egiten baita.



Erakunde pribatuei dagokienez, kontsulta gehien egin dituztenak arkitekturaren alorreko enpresak eta profesionalak izan dira (% 43); auzokoen erkidegoek, berriz, kontsulten % 52 egin dute. Erakunde pribatuek egindako kontsulta guztien % 5 osatzen dute irabazi-asmorik gabeko erakundeek egindako kontsultek.



**Erantzundako kontsultak gaiaren arabera** zenbatuz gero, legediari buruzkoak % 50 izan dira guztira, alderdi teknikoari buruzkoak % 35, eta diru-laguntzei buruzkoak, azkenik, beste % 9.



Modu batean edo bestean irisgarritasun-araudiarekin zentzu zorrotzean lotutako araudiei buruzko kontsulten maiztasuna esanguratsua da. Jabetza horizontalari buruzko araudia errealitate horren adibideetako bat dugu, erantzundako kontsulten % 41 baita, eta konstante horri eutsi baitzaio denboran.

Zenbait kasutan, kontsultak Irisgarritasuna Sustatzeko Legearen gaineko gai teknikoei buruzkoak eta konponbide teknikoko alternatibei edota laguntza ekonomikoko ildoei buruzkoak dira. Izan ere, auzokoen erkidegoen kasua horrelakoa da: soilik teknikoak diren gaiekin batera, erkidegoaren esparruko elkarbizitzan eta erkidegoan hartu beharreko erabakietan eragina duten gaiak ageri dira. Ohikoa da banan-banako kontsultak telefono bidez konpontzea; hitzordu pertsonala behar izan duten kontsultak kolektiboak izan dira (normalean, beren Erkidegoetan arkitektura-oztopoak kentzeko obrak abian jartzeko arduradun izendatutako hainbat bizilagun, edota lagun edo senitartekoren batekin aurkeztu diren interesdunak).



### **3.2.- Irisgarritasuna Sustatzeko Batzorde Iraunkorrerako, Euskal Kontseilurako eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailerako laguntza teknikoa.**

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailerako laguntza teknikoko Zerbitzuak gauzatu beharreko beste jarduera bat honako hau da: Batzorde Iraunkorrari, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari eta Herri Lan eta Garraio Sailari laguntza teknikoa ematea, hori eskatzen zaion kasuan. Ildo horretatik, honako ekintza hauek egin dira:

- 1.- Etxebizitza Sailerako Txostena, Gasteizko Erdi Aroko Hiriguneko arrapala mekanikoei buruzkoa (2008. urtea).
- 2.- Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilurako Txostena, etxebizitzak izateko gaitutako lonjak Laudion familia bakarreko etxebizitzatzat har daitezkeen jakiteko irizpidea argitzeari buruzko erabakia hartzeko eskatuz (2008. urtea).
- 3.- Etxebizitza Sailerako Txostena, Gasteizko Jabetzaren Ganbera kokatuta dagoen lokalaren irisgarritasun-baldintzei buruzkoa (2008. urtea).
- 4.- Etxebizitza Sailerako Txostenak, Loiolako Erriberako (Donostia) Babes Ofizialeko Etxebizitzen sustapen batean erreserbatutako etxebizitzen esleipendunek behar dituzten egokitzapenak egokiak ote diren aztertzeko (2008. urtea).
- 5.- Etxebizitza Sailerako Txostena, egokitutako etxebizitzen ondoriozko problematikari buruzkoa (2008. urtea).
- 6.- EKT (Eraikuntzaren Kode Teknikoa) Irisgarritasun Batzordearen behin-behineko dokumentuaren –EKTaren (Eraikuntzaren Kode Teknikoa) DB-SU (Erabilera Segurtasuna) eta DB-SI (Segurtasuna Suteen kasuan) oinarritzko dokumentuak berrikusteari buruzkoaren– azterketa, analisia eta oharra, “Irisgarritasun” baldintza berria txertatzeko (2009. urtea).
- 7.- “Irisgarritasun-baldintzak eraikuntza berriko eraikin eta establezimenduetan. Lan-taldearen proposamena. 2009ko ekainaren 1a” deritzon dokumentuaren azterketa, analisia eta alegazioak (2009. urtea), hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen, eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren eta adierazitako dokumentuan egon litezkeen gatazka-puntuetan oinarrituz.

8.- Irisgarritasunaren aldeko eta espazio publiko urbanizatueterako sarbideetan eta horien erabileran diskriminaziorik ez egoteko oinarrizko kondizioen Dokumentu teknikoa garatzen duen Ministerio Aginduaren azterketa, analisia eta alegazioak (2009. urtea).

9.- Eraikuntzaren Kode Teknikoaren CTE-SUA (Segurtasuna Erabileran eta Irisgarritasunean) oinarrizko dokumentuaren eta hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen, eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren arteko konparazio-azterlanaren dokumentua (2009. urtea).

10.-Zoladuren irristagaiztasun-printzipioa –hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen, eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan jasotakoa– aplikatzeko jarraibidea idaztea (2009. urtea).

Halaber, Irisgarritasunari buruzko laguntza teknikoko Zerbitzuari eskatu zaio Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak kudeatutako prozedura jakin batzuetan esku hartzeko (Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Sailak eskatuta), esate baterako, honako hauek:

- Etxebizitza babestuak egokitzeko espedienteak (Sailaren Lurralde Ordezkaritzak eskatuta).
- Alderdi teknikoei buruzko balioespenak eta alegazioak, irisgarritasunari buruzko Udal Ordenantzari eginak.
- Etxebizitzak erreserbatzeko espedienteak.
- Desafektazio-eskaerretarako espedienteak.

Erakundea	Lurraldea	Gaia
Sustatzailea	Bizkaia	66 etxebizitza, garaje eta trastelekuren sustapen librea. Erreserba.
Sustatzailea	Bizkaia	Garaje-partzelen (2) desafektazioa, sustapen librea.
Partikularra	Bizkaia	Etxebizitza erreserbatua erosteko prozedura.
Profesionala	Bizkaia	68/2000 Dekretuaren V. eranskinaren aplikazioa.
Udala	Araba	Etxebizitza-erreserbari onirizpena ematea.
Udala	Gipuzkoa	Etxebizitza trukitzea.

Erakundea	Lurraldea	Gaia
Udala	Bizkaia	Garaje-plazen erreserba – araudia.
Sustatzailea	Araba	Etxebizitzak sustapen librean desafektatzeko prozedura.
Sustatzailea	Bizkaia	Etxebizitzak (2) sustapen librean desafektatzeko prozedura.
Sustatzailea	Gipuzkoa	Etxebizitza sustapen librean erresebatzeko prozedura.
Sustatzailea	Bizkaia	64 etxebizitzaren sustapen librea. Desafektatzeko prozedura.
Partikularra	Gipuzkoa	Etxebizitza erresebatuaren egokitzapena.
Sustatzailea	Bizkaia	99 etxebizitza eta garajeren sustapena. Jarraibideak desafektazio-kasuan.

#### 4.- IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUARI PROPOSATUTAKO GAIEN LABURPENA

Modu batean edo bestean irisgarritasunarekin lotuta badaude ere, irisgarritasunaren alderdi desberdinetan eragina duten kontsultak jasotzen ditu Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak, eta baita horiei erantzun ere. Horrela, arau-interpretazioaren gaineko kontsultekin batera, beste hainbat alderdiri buruzkoak ere jasotzen ditu, hala nola hirigintza-plangintzari buruzkoak, administrazio-prozedurei buruzkoak edota eskumen-esparruei buruzkoak.

##### 4.1.- Txosten-eskaerak eta Kontsultak

2008. urtean, eta adierazitako ildo beretik, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari erantzun-txostena honako 11 espediente hauetan emateko eskatu zaio:

Erregistr	Erakundea	Lurraldea	Gaia
01.08 ACC	Udala	Gipuzkoa	Sarbideak eta komunikazioak bizitegi-erakinetan.
02.08 ACC	Profesionala	Bizkaia	Oinezkoen ibilbideak garatzea hirigintza-plangintzan.
03.08 ACC	Partikularra	Gipuzkoa	Gimnasio-jarduerarako lizentzia-espedienteari buruzko informazioa.
04.08 ACC	Profesionala	Gipuzkoa	68/2000 Dekretuaren V. eranskinaren aplikazioa, alderdi politikoaren gizarte-egoitzetako eraberritze-obren kasuan.
05.08 ACC	Partikularra	Araba	Berritzea Jabeen Erkidegoan eta 68/2000 Dekretuaren V. eranskinaren aplikazioa. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak desgaituentzat aurreikusitako laguntza-ildoei buruzko informazioa.
06.08 ACC	Partikularra	Bizkaia	Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak desgaituentzat aurreikusitako laguntza-ildoei buruzko informazioa.
07.08 ACC	Profesionala	Galizia	Korridore nagusiei buruzko arau-aurreikuspenak.
08.08 ACC	Udala	Bizkaia	Komunikazio bertikala eraikinen barruan.
09.08 ACC	Udala	Araba	Irisgarritasun-araudia eta Antolamendurako Plan Orokorra.

Erregistroa	Erakundea	Lurraldea	Gaia
10.08 ACC	Udala	Bizkaia	Irigarritasun-araudiaren eta beste arau multzoen gatazka.
11.08 ACC	Elkartea	Araba	Irigarritasun-araudia – garraioak

2009. urtean, Irigarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari zuzenean bidalitako hainbat txosten-eskaera jaso ditugu irigarritasunarekin lotutako gaietarako; halaber, zenbait kontsulta ere izan ditugu, guztira hamaika espediente (11) osatuz.

Erregistroa	Erakundea	Lurraldea	Gaia
01.09 ACC	Udala	Gipuzkoa	Korridore nagusiaren eta/edo bigarren korridorearen kontzeptuak.
02.09 ACC	Partikularra	Gipuzkoa	68/2000 Dekretuaren V. eranskinaren aplikazioa igogailua instalatzeko obretan.
03.09 ACC	Profesionala	Gipuzkoa	68/2000 Dekretuaren V. eranskinaren aplikazioa bizitegi-erakinean.
04.09 ACC	Partikularra	Bizkaia	Plataforma zeharrik jartzea eta sarbideei eta barneko komunikazioari buruzko eskakizunak.
05.09 ACC	Udala	Gipuzkoa	Zaharren egoitza: eskubanden erabilera.
06.09 ACC	Udala	Bizkaia	68/2000 Dekretuaren V. eranskinaren aplikazioa merkataritza-lokalean.
07.09 ACC	Udala	Gipuzkoa	Arau-inplikazioak obra-lizentziak eta/edo jardura-lizentziak emateko kasuetan.
08.09 ACC	Justizia Administrazioa	Gipuzkoa	Informazio-eskaera, alderdiak eskatuta.

Zerbitzuak erantzundako kontsulta guztiak oro har aztertu ondoren, egokitzen jotzen dugu honako ondorio hauek nabarmentzea:

1. Gaur egungo araudia baino lehenago zeuden eraikinetan igogailuak jartzeari buruzko arazoarekin lotutako kontsulta ugari. Gai horri buruzko interesa agertu ohi dute Jabeen Erkidegoetako ordezkariak nahiz udal-teknikariak; zehazki, araudiak eskatutakoak baino igogailu txikiagoak instalatzeko aukerei, eskailera-zabaleretan arkitektura-oztopoak kentzeko obren eraginari edota suteen gaineko araudiari buruzko kontsultak ohikoak dira. Halaber, erkidego-erabakiak hartzeko prozedurari, beharrezko quorumei eta erabakien izaera lotesleari edo ez-lotesleari buruzko galderak ohikoak dira esparru horretan.

2. 68/2000 Dekretuaren V. eranskina (lehendik zeuden urbanizazio eta eraikinetan Zabalkuntza-, Eraberritze- edo Aldaketa-obrak) aplikatzearekin lotutako kontsulten indize handia nabarmendu da. Erabilgarritasun-irizpideen aplikazioari buruzko kontsultak eta betearazpenerako salbuespenak emateko aukerari buruzkoak oso ohikoak dira.
3. Eraikuntza berriko etxebizitzaren kasuetan, nabarmendu beharrekoak dira toki komunei (trastelekuak, eskailerak, korridoreak eta abar) buruzko kontsultak.
4. Etxebizitza erresebatuen egokitzapenetan, ohikoak dira bainugelak egokitzeari buruzko kontsultak.
5. Bestalde, honako hauetan ere kezka eta zalantza handiak izan ohi dira: jasotze zehar edo bertikaleko plataformen instalazioa, horien neurriak, derrigorrezkoak ote diren, eta egokiak ote diren.
6. Kontsultara iristen den kasuistikak agerian uzten du Administrazioek arintasun eta koordinazio handiagoa behar dutela.
7. Etxebizitza erresebatuen desafektazio-prozedurekin zerikusia duten kontsulten maiztasuna; profesionalek, teknikariek eta partikularrek dute prozedura horien ardura.
8. Hainbat aldiz, “mota jakin bateko kasuak” ez diren gaiei buruzkoak izan dira kontsultak; batzuk, nolabait esateko, gai bitxiei buruzkoak izan dira. Kontsultak egiten dituzten pertsonak, kasu askotan, interpretatzen dute araudiak ez dituela erregulatzen egoera horiek, edo bestela, erregulatzen badituzte ere, erregulazio hori nahasgarria dela eta aplikatzeko moduari buruzko zalantzak sortzen dituela.
9. Udal-esparruan, arkitektura-oztopoak ezabatzeko laguntza ekonomikoak eskatzen dira, horrelako esku-hartzeak oso garestiak izan ohi direlako.

#### 4.2.- 2008. urteko Salbuespenak jakinaraztea.

68/2000 Dekretuaren V. eranskineko (Urbanizazio eta Eraikinetan Zabalkuntza-, Eraberritze- edo Aldaketa-obra) 3.3. puntuari jarraiki, 2008. urtean, gaur arte, irisgarritasun-araudia aplikatzerakoan salbuespena ezarri zaien **165 espediente** jakinarazi zaizkio Kontseiluari. Salbuespena aplikatu dutela Kontseiluari jakinarazi dioten Udalak honako hauek dira:

Erregistroa	Udala	Arrazoa
01.08 EXE/CVPA	Basauri	Antonio Fernández kaleko 11. zenbakian igogailua jartzea. Salbuespena eman dute igogailuaren kabinaren neurriei dagokienez, eskailera-begiaren neurria dela-eta, eta eskailera-mailak gehiago murriztea ezinezkoa delako.
02.08 EXE/CVPA	Zarautz	Gipuzkoa kaleko 23. zenbakian (23 B) igogailua jartzea. Erakinaren tipologia eta egitura-baldintzek, igogailura sartzeko plataformetan, behesolairuan, eta goiko solairuetan 1,40 metroko diametroa duen zirkulu bat inskribatzea galarazten dute.
03.08 EXE/CVPA	Barakaldo	Llamo kaleko 74. zenbakian igogailua jartzea. Salbuespena eman dute igogailuaren kabinaren neurriak egokitzea ezinezkoa delako, eskaileraren lauzak, horien neurriek eta espazio publikoaren okupazioak hori galarazten baitute; sarbide-plataformen neurriei eutsi zaie (erabilgarritasuna).
04.08 EXE/CVPA	Basauri	Kareaga Goikoa kaleko 129. zenbakian igogailua jartzea. Igogailua eskailera-kaxan ipintzen da, eskailera-buruaren aldameneko despentsak dauden tokian, hain zuzen. Salbuespena eman dute igogailuaren kabinaren neurriei eta pasatzeko zabalerari dagokienez.
05.08 EXE/CVPA	Santurtzi	Bañaleserako Igoera kalearen 2. zenbakiko igogailu-geralekua eraberritzea. Informazio gehiago emateko eskatzen dizuegu, ISEKri udal-teknikariek proiektuaren aldeko txostena eman dutela jakinarazi badute ere, betearazpenerako salbuespena emateari buruzko zehaztapenik ez dute egin, ezta justifikazioa xehatu ere.
06.08 EXE/CVPA	Santurtzi	Lauaxeta kaleko 6. zenbakian (bis) igogailua jartzea. Jakinarazi dutenez, proposamenak ez ditu betetzen Dekretuaren V. eranskinaren 3.2.g artikuluan aurreikusitakoari jarraiki igogailuaren kabinak izan behar dituen gutxieneko neurriak, eta adierazi dute hartutako konponbidea dela ezar daitekeen bakarra.
07.08 EXE/CVPA	Santurtzi	Antonio Alzaga kaleko 32. zenbakian (32 B) igogailua jartzea. Salbuespena eman dute igogailuaren kabinaren neurriei dagokienez, hartutako konponbidea bideragarria izan daitekeen bakarra delako.
08.08 EXE/CVPA	Barakaldo	Balejo kaleko 7. zenbakian igogailua jartzea. Salbuespena eman dute igogailuaren kabinaren neurriei dagokienez, eskaileraren lauzak, eta haren, atariaren eta eskailera-buruaren neurriek (salbuespena) galarazten dutelako; atarirako sarbidea arrapala baten bitartez egin da (erabilgarritasuna), eta sartzeko plataformen neurriei eusti zaie (erabilgarritasuna).

Erregistroa	Udala	Arrazioa
09.08EXE/ CVPA	Getxo	Algortako Euskalherria kaleko 18. zenbakian lokal bat eraberritzea, ile-apaindegi bihurtzeko. Salbuespena eman dute lokalera sartzeko arrapala egiteari dagokionez, lokala eta eraikinaren sotoan kokatutako garajeak banatzen dituen forjatuan eragina izango bailuke, eta gainera, lokalaren zabalera erabilgarriarekin alderatuz neurritz kanpoko litzatekeen azalera edukitzea ekarriko bailuke (arrapala eta komuna).
10.08 EXE/CVPA	Legazpi	Legazpiko Lanaren Hiribidea kaleko 5. zenbakian (1) kokatutako eraikineko atarirako sarbidea eta Urtatza auzoko 8. zenbakian (2) eta 20. zenbakian (3) kokatutako eraikinetako igogailuen instalazioa berritzea. Espediente horiei buruzko informazio gehiago emateko eskatzen dugu. Otsailaren 8an informazio gehiago eman zuten (eskatu zitzaien bezala): (1) salbuespena eman dute arrapala-aldaparen espedienteari eta kanpotik atarira sartzeko neurriei dagokionez, atariaren antolakuntzak mugak baititu; (2) eta (3) salbuespena eman dute igogailuaren kabinaren neurriei eta irtenguneei dagokienez, bideragarria litzatekeen konponbide tekniko faboragarriagorik ez baitago.
11.08 EXE/CVPA	Tolosa	Martín José Iraola kaleko 7. zenbakian igogailua jartzea (espaloia zati bat aprobetxatzen da). Salbuespena eman dute, egitura-, forma- eta aurrekontu-egiturak direla-eta, kabinaren barne-neurriei eta kabinara sartzeko atearen parean kokatutako sarbide-plataformen barne-neurriei dagokienez.
12.08 EXE/CVPA	Basauri	Autonomia kaleko 14. zenbakian igogailua jartzea. Fatxada nagusiaren eranskin gisa instalatzen da igogailua, eskailera-kaxarekin eta atariarekin bat etorrituz, eta ezarritakoa espazialki betetzea ezinezkoa denez, salbuespena eman dute sarbide-plataformei dagokienez (oztoporik gabeko 1,40 zentimetroko zirkulua inskribatzea ezinezkoa da) eta kabinaren, atariaren eta sargunearen neurriei dagokienez.
13.08 EXE/CVPA	Arrasate	San Bixente Ferrer kaleko 6. zenbakian igogailua jartzea. Eskaileraren zabalera 80 zentimetroaraino murriztu da, egungo eskailera-kaxan igogailua instalatu ahal izateko. Horren ondoriozko tokiak erabilgarritasun-irizpideak aplikatzea ahalbidetzen du, igogailuaren kabinaren neurriei dagokienez, baina betearazpenerako salbuespena eman da kabinara sartzeko pasabideari dagokionez, behar adina toki ez baitago.
14.08 EXE/CVPA	Barakaldo	Landaburu kaleko 12. zenbakian igogailua jartzea. Salbuespena eman dute egitura- eta forma-baldintzetan justifikatuta, eskaileraren lauzak, eta haren, atariaren eta eskailera-buruaren neurriek (salbuespena) ez baitute hori ahalbidetzen; atarirako sarbidea bi mailaren bitartez egin da (salbuespena, ez dago arrapala atarian jartzeko lekurik) eta erabilgarritasun-irizpideak aplikatu dira sarbide-plataformei dagokienez, horien neurriei eutsiz.
15.08 EXE/CVPA	Basauri	Beñat Etxepare kalearen 4. zenbakian igogailua jartzea. Igogailura sartzeko plataformak egungo neurriei eusten die, oztoporik gabeko 140 zentimetroko diametroa duen zirkulua inskribatzea ez baita bideragarria. Eraikuntzan, ataria atera egiten da, eskaileraren erdiko eskailera-buruak markatzen dituen fatxadaren lerrokadurarekin alderatuz, eta beraz, igogailua beheko solairuan kokatuz (atariaren barruan), lehen solairuan azaleratzen da, fatxadari erantsita. Sarguneak erdiko eskailera-buruetan egiten dira, irisgarritasunaren arazoa erabat konpondu gabe, nahiz eta nabarmen hobetzen duen eta egin daitekeen alternatiba bakarra den. Esku-hartzea eskailerak urratuz, haren aireztatze-leihoak lekuz aldatuz, eta eraginpeko instalazio-sareetan aldaketak sartuz osatzen da. Igogailuaren kabinak ez ditu araudian aurreikusitako neurri-eskakizunak betetzen, ondoriozko lekua eta dagoena kontuan hartuz.



Erregistroa	Udala	Arrazoia
16.08 EXE/CVPA	Barakaldo	Zubieta kaleko 8. zenbakian igogailua jartzea. Salbuespena eman dute igogailuaren kabinaren eta sarbide-plataformen neurriei dagokienez, eskailera-kaxaren neurriak direla-eta.
17.08 EXE/CVPA	Zarautz	Urteta Bideko (z.g.) Olatxo etxean igogailua jartzea. Eraikinaren ezaugarriak eta egitura-baldintzak direla-eta, salbuespena eman dute igogailuaren kabinaren eta igogailura sartzeko plataformen neurriei dagokionez.
18.08 EXE/CVPA	Getxo	Areetako Santa Anako 5. zenbakian lokal bat berritzeko lizentzia, lehen arropa egiteko erabiltzen zen lokal hori ile-apaindegi misto gisa erabiltzeko egokitzeko. Betearazpenerako salbuespena eman dute lokalerako sarbideari dagokienez, Jabeen Erkidegoak ez baitu baimentzen lokalera sartzeko arrapalarik egikaritzea, beheko solairuko habean eta forjatuan eragina izango bailuke, eta horretaz gain, oso esku-hartze garestia bailitzateke (34.000 €) eraberritze-obrekin alderatuz (udal-teknikariaren aburuz, betearazpenerako salbuesten du horrek).
19.07 EXE/CVPA	Basauri	Autonomia kaleko 10. zenbakian igogailua jartzea. Salbuespena eman dute igogailuaren kabinaren neurriei eta sarguneei dagokienez, eraikinaren fatxada nagusiaren eranskin gisa instalatu baita igogailua. Ataria eta goiko solairuak erdiko eskailera-buruak markatzen dituen fatxadaren lerrokadura berean daude, eta beraz, igogailua atariaren kanpoan kokatzen da, fatxadari erantsita, atariaren kanpoan geratuz (beheko solairuan), eta sartzeko erabiltzen den gunearen zati bat okupatuz. Sarguneak erdiko eskailera-buruetan gertatzen dira, irisgarritasunaren arazoa erabat konpondu gabe, baina nabarmen hobetuz. Jarduna aireztatze-leihoak eta eskaileraren argiztapena urratuz eta lekuz aldatuz osatzen da. Araudiak aurreikusitako oztoporik gabeko 1,40 zentimetroko zirkulua inskribatzea ezinezkoa da.
20.08 EXE/CVPA	Derio	Euskalherriako 1. zenbakian igogailua jartzea. Aurkeztutako proiektuak 68/2000 Dekretuaren V. eranskinaren 3. artikuluko aurreikuspenak betetzen dituela jakinarazten da eta ISEKri hori helerazten zaio, 3.3 artikuluan ezarritakoari jarraiki. V. eranskin horri dagokienez, emandako salbuespen zehatzei eta horien justifikazioari buruzko txostena emateko eskatzen dugu. Esku-hartzearen xehetasuna eta baldintzak –egitura-arrazoia direla-eta– aurkezten dizkigute.
21.08 EXE/CVPA	Errenteria	Atariederreko 6. zenbakian igogailua jartzea. Eskailerak ez du erdiko hutsunerik, eta obraren egikaritzapena gailua kanpoan –eskaileraren aurrean– kokatzera baldintzatzen du horrek; igogailura ataritik sartzen da igogailura, eta igogailuak hartutako bolumen berriaren lerrokatzeraino handiagotzen da hura; azkenik, gainerako irtenguneak eskaileraren erdiko eskailera-buruetan egiten dira, etxebizitza-solairuen arteko altuera-erdian.
22.08 EXE/CVPA	Igorre	Lehendakari Agirreko 14. zenbakian igogailua jartzea. Salbuespena eman dute igogailuaren kabinaren neurriei dagokienez, eskaileraren kondizioak direla-eta (eskailera-begia), tokia handitzeko lana zailago bihurtzen baitute egiturari dagokienez.
23.08 EXE/CVPA	Barakaldo	Igogailuaren kabinaren eta sarbide-plataformen neurriak egokitzea ezinezkoa dela justifikatzen dute; horrela, sarbide-plataformak dauden neurrietara egokitzen dira, eskaileraren lauzak eta haren, atariaren eta eskailera-buruen neurriek (salbuespena) galarazten dutelako; erabilgarritasun-irizpideak aplikatzen dira sarbide-plataformei dagokienez (beren neurriei eusten diete).

Erregistroa	Udala	Arrazioa
24.08 EXE/CVPA	Barakaldo	Uribeko Merindadea kalearen 7. zenbakian igogailua jartzea. Egitura- eta forma-arrazioiek justifikatzen dute araudia ez dela betetzen igogailuaren kabinaren neurriei dagokienez; eskaileraren lauzak eta haren, atariaren eta eskailera-buruen neurriek (salbuespena) hori galarazten dute; azkenik, atarirako sarbidea arropalaren bitartez egiten da (erabilgarritasuna), sarbide-plataformetan 1,40 zentimetroko diametroa duen zirkulua inskribatzea ahalbidetuz (erabilgarritasuna).
25.08 EXE/CVPA	Agurain	Langarika Bideko 16. zenbakian igogailua jartzea. Salbuespena eman dute igogailuaren kabinaren neurriei dagokienez; izan ere, neurri horiek ezin dira handiagotu, igogailua kokatuta dagoen tokiaren aldameneko etxebizitza nahiz eskaileren argiztapenaren hutsuneak inbaditzea ekarriko bailuke horrek.
26.08 EXE/CVPA	Agurain	Langarika Bideko 2. zenbakian igogailua jartzea. Salbuespena eman dute igogailuaren neurriei dagokienez, bestela aldameneko eskailera-begiak – ebakuaziorako beharrezkoak – inbadituko bailirateke.
27.08 EXE/CVPA	Mutriku	Gaztañeta Almirantea kaleko 18. zenbakian igogailua jartzea. Partikularrek aurkeztutako proiektua bidali dute, baina ez dute informaziorik eman. Informazio gehiago emateko eskatzen dizuegu. Igogailuaren kabinaren neurriei eta aurreikusitako oztoporik gabeko zirkulari dagokienez emandako salbuespenari buruzko informazioa (2008. urteko apirila) eman dute, eraikinaren egitura-ezaugarrien eta kokapenaren justifikazioarekin.
